DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2014

# FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN XXV. ASTEA

URRIA 25 - AZAROA 1

# XXV SEMANA DE CINE FANTÁSTICO Y DE TERROR

25 OCTUBRE - 1 NOVIEMBRE

WWW.SANSEBASTIANHORRORFESTIVAL.COM




maketa / maqueta: Jack Mircala    argazkia / fotografía: Asís G. Ayerbe


Antolatzailea _ Organizador

donostiakultura.com · Donostiako Udala Ayuntamiento de San Sebastián · Donostia 2016 San Sebastián

Babesleak _ Patrocinadores

kutxa · kutxabank · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila / Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura) · Gobierno de España, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, ICAA

Laguntzaileak _ Colaboradores

Euskararen Hitza Donostia · Donostia San Sebastián Turismoa · Donostiako Udala Ayuntamiento de San Sebastián, Gazteria - Juventud · fnac www.fnac.es · Subterfuge Records · Syfy · gaztea · El Diario Vasco · giugan · REC · Super Amara

**URRIA 25 ★ ABENDUA 5**

***25 OCTUBRE ★ 5 DICIEMBRE***

## VIAJE AL CENTRO DE SUBTERFUGE

# SUBTERFUGEREN

## 1989 ★ ERDIRA BIDAIA ★ 2014



## *C.C.* OKENDO K.E. Nafarroa etorbidea 7

Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea
Semana de Cine Fantástico y de Terror

donostiakultura.com

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN

# KRESALA ZINEKLUBA
(CINES TRUEBA ZINEMAK) gonbidapenarekin / con invitación

## 20
**ASTELEHENA** / LUNES

**19:30**

### METRÓPOLIS
(*Metropolis*, 1927)
Fritz Lang. Alemania
146 min



Itzala. Bere arkitekturaren itzala luzea da eta Gothameko etxe orratz beltzetaraino hedatzen da, **Blade Runner**-en (1982) horma hezeetaraino. Bere itzala izugarria da, mefistofelikoa. Bere esklabo tropelak, batere zoriontsu ez direnak, gure amets gaizto proletarioetako biztanleak dira. Bere jendea, Lang zuzendari, Karl Freund argazki zuzendari, Eugene Schüfftan efektu berezien sortzaile, Otto Hunter, dekoratzaile, eta Thea von Harbou bera gidoilari izanik, zinema aldatu zuten izakien Parnasokoak dira. Bere musikak, entzun ez baino sentitzen den musika horrek, plano bakoitzaren erritmoa besarkatzen du.

La sombra. La sombra de su arquitectura es alargada y se extiende hasta los negros rascacielos de Gotham, hasta los húmedos muros de **Blade Runner** (1982). Su sombra es tremenda, mefistofélica. Sus pelotones de esclavos en absoluto felices pueblan nuestras pesadillas proletarias. Sus gentes, Lang como director, Karl Freund como director de fotografía, Eugene Schüfftan como creador de los efectos especiales, Otto Hunter, decorador, y la mismísima Thea von Harbou como guionista, pertenecen al Parnaso de seres que cambiaron el cine. Su música, esa música que no se oye pero se siente, abraza el ritmo de cada plano.

# ANTZOKI ZAHARRA
# TEATRO PRINCIPAL

Antzoki Zaharreko film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira gaztelerazko azpitituluekin, KILLERS eta “24 ASTE GEROAGO – FILM LABURRAK” saioa salbu. Hauek euskarazko azpitituluekin emango dira. Bestetik AITA, ZONBIA NAIZ euskaraz bikoizturik emango da.
Todas las películas del Teatro Principal se proyectarán en versión original subtitulada en castellano excepto KILLERS y la sesión “24 SEMANAS DESPUÉS – CORTOMETRAJES”, que se subtitularán en euskera, y AITA, ZONBIA NAIZ, que se exhibirá doblada al euskera.

## 25
**LARUNBATA** / SÁBADO

**19:45** — **INAUGURAZIOA** / INAUGURACIÓN

### MUSARAÑAS
(2014) Juanfer Andrés, Esteban Roel
Espainia / España. 90 min



Espainia, 50eko hamarkada. Montsek gaztaroa galdu du ahizpa txikia zaintzen, biak Madril erdialdeko zoritxarreko pisuan sartuta. Ama alaba txikiaz erditu zenean hil zen eta aitak ezin izan zuen jasan eta ihes egin zuen. Aldi berean aita, ama eta ahizpa zaharrena izatera beharturik, bizitzatik at ezkutatuta bizi da lau pareta artean Montse, izaera obsesiboa eta desorekatua elikatuz: agorafobia du eta ezin du etxetik kanpo pauso bat ere eman. Egun batez, bizilagun gazte bat agertuko da haien bizitzetan.

España, años 50. Montse ha perdido su juventud cuidando de su hermana pequeña, encerradas en un siniestro piso del centro de Madrid. Su madre murió en el parto de la pequeña y el padre no pudo soportarlo y huyó. Obligada a ser padre, madre y hermana mayor, Montse se esconde de la vida entre cuatro paredes, alimentando un temperamento obsesivo y desequilibrado: padece de agorafobia y no puede dar un paso fuera de casa. Un día un joven vecino aparece en sus vidas.

## 22:30

# DEAD SNOW 2: RED VS. DEAD / DØD SNØ 2

(2014)
Tommy Wirkola
Norvegia-Islandia / Noruega-Islandia
100 min



Zure bizitzako egun okerrena neska-laguna aizkoraz hiltzean, zerra mekanikoarekin besoa moztean eta zonbi nazien batailoi batek zure lagun onenak irenstean oinarritzen bada, onartu beharko duzu oso zaila dela gauzak gehiago okertzea. Martinen kasuan, alta, hasiera besterik ez zen izan hura. Azken urteotako beldurrezko film dibertigarri, original eta arrakastatsuenetako baten bigarren atala aurrekoa amaitutako unean abiatzen da, Herzog koronelaren aginduetara zonbi bilakatutako soldaduak Martin harrapatzen saiatzen ari diren unean eta berriz ere Tommy Wirkolaren zuzendaritzapean Hollywooden **Hansel & Gretel: Witch Hunters** (2013) filma aurkeztu ondoren.

Si el peor día de tu vida consiste en matar accidentalmente a tu novia con un hacha, cortarte un brazo con una sierra mecánica y ver cómo tus mejores amigos son devorados por un batallón de zombis nazis, tendrás que asumir que las cosas no pueden empeorar demasiado. En el caso de Martin, sin embargo, aquello solo fue el principio. Secuela de una de las películas de terror más divertidas, originales y exitosas de los últimos años, que empieza donde acabó la anterior, con los soldados zombificados a las órdenes del coronel Herzog intentando dar caza a Martin, y que vuelve a ser comandada por Tommy Wirkola tras su paso por Hollywood, donde dirigió **Hansel y Gretel: Cazadores de brujas** (2013).

## 00:30

# The Fly

(2014)
Olly Williams
Erresuma Batua (Ingalaterra) / Reino Unido (Inglaterra)
7 min

Gidari bat banketxe bateko atarian geldirik dago, bere kideek banketxea lapurtzeko zain. Hiru minutu besterik ez dira. Lasai eta kontzentratuta egon, ez du besterik egin behar, haiek irten eta ihes egiteko. Baina, bitarte horretan, euli bat iristen da.

Un conductor espera en la puerta de un banco a que sus socios lo roben. Solo son tres minutos. Lo único que tiene que hacer es permanecer tranquilo y concentrado, que salgan y escapar de allí. Pero mientras tanto llega una mosca.

# ZOMBEAVERS

(2014)
Jordan Rubin
AEB / EEUU
77 min



Hiru neska basoaren erdian, aintzira baten ondoan dagoen etxola batean. Eguneroko bizitzatik, ikasketetatik, gurasoengandik, mutil-lagunengandik... aldentzeko asmoz iritsi dira. Mutil-lagunak, ordea, ezustean agertuko dira eta eguzkia hartuz igaro beharreko asteburu lasaia zirudiena, festa bilakatuko da. Edo antzeko zerbait. Izan ere, bitartean, material arriskutsuz betetako bidoiak garraiatzen dituen kamioi bati horietako bat ibaira erori zaio istripuz. Bidoietako substantzia kastore batzuen gainera eroriko da mutazio bat eraginez eta... kastore zonbi bilakatuko dira!

Tres chicas en una cabaña en mitad del bosque, al borde de un lago. Han ido allí para desconectar de su vida diaria, de sus estudios, sus padres y madres, de sus novios... Pero estos aparecen por sorpresa y lo que parecía un fin de semana tranquilo tomando el sol se transforma en una fiesta. O algo parecido. Porque mientras tanto un camión cargado de bidones con material peligroso ha dejado caer accidentalmente uno de ellos sobre el río. Y los castores sobre los que acaba derramándose la sustancia de su interior han sufrido una mutación y se han convertido en... ¡castores zombis!

## LOS ÚLTIMOS DÍAS EN MARTE

(*The Last Days on Mars*, 2013)
Ruairí Robinson
Erresuma Batua-Irlanda / Reino Unido-Irlanda. 109 min



Martera bideratutako lehen misioaren azken egunean, taldeko kide batek sekulako aurkikuntza egin duela uste du: bakterio-bizitza fosilduaren arrastoa. Aurkikuntzaren loria guztia bereganatzeko, aginduei muzin egin eta beste lagin baten bila abiatuko da planeta gorria utzi aurretik. Baina istripu bat izango du. Eta baliteke aurkitu berri duen bizitza hori uste bezain hilik ez egotea. Liev Schreiber, Elias Koteas, Romola Garai eta Olivia Williams dira Ruairí Robinson zuzendari irlandarraren debutaren protagonistak.

En el último día de la primera misión tripulada a Marte, un miembro del equipo cree que ha hecho un extraordinario descubrimiento: una evidencia de vida bacteriana fosilizada. Intentando llevarse toda la gloria del hallazgo, desobedece las órdenes y vuelve a buscar una muestra antes de abandonar el planeta rojo. Pero tiene un accidente. Y la forma de vida que ha descubierto quizá no esté tan muerta como parecía. Liev Schreiber, Elias Koteas, Romola Garai y Olivia Williams protagonizan el debut en la dirección del irlandés Ruairí Robinson.

# 26
**IGANDEA** / DOMINGO

### 17:00

## Babysitting Story

(2014)
Vincent Smitz
Belgika / Bélgica
20 min

Ekaitz-gau batean, Sarah eta Julie nerabeak etxe isolatu batera joango dira umezain lanak egitera. Behin bakarrik daudela, Sarahk inguru horretan ustez gertatu zen istorio ikaragarri bat kontatuko dio Julieri…

Una noche tormentosa dos adolescentes, Sarah y Julie, van a hacer de canguros en una casa aislada. Una vez están solas, Sarah le cuenta a Julie una terrorífica historia que pudo haber tenido lugar en la zona…

## IT FOLLOWS

(2014). David Robert Mitchell
AEB / EEUU. 97 min



19 urteko gaztea da Jay –Maika Monroe, **The Guest** (2014) filmeko protagonista ere bada– eta udazkena eskola, mutilak eta lakuan igarotako asteburuen artean pasatzen du. Gau erromantiko baten ondoren, ordea, norbait edo zerbait atzetik duela nabaritzen du. Egun osoan zehar irudipenak eta amesgaiztoak sentitzen ditu, baita presentzia arraro batek etengabe jazartzen duela. Eta ez dirudi oso adiskidetsua denik. Bere lagunak ere gauza bera sentitzen hastean, euren bizitzen alde borroka egin beharko dutela ohartuko dira.

Para una joven de 19 años como Jay –Maika Monroe, también protagonista de **The Guest** (2014)– el otoño gira en torno a la escuela, los chicos y fines de semana en el lago. Tras una noche romántica, sin embargo, comienza a sentir que alguien o algo la sigue. Tiene visiones y pesadillas durante todo el día, y una sensación permanente de que una extraña presencia la acosa. Y no parece muy amistosa. Cuando sus amigos y amigas también lo sienten, se dan cuenta de que deben pelear por sus vidas.

### 19:45

## Ghost Train

(2013)
Lee Cronin
Irlanda-Finlandia
16 min

Egun elkarrengandik urrun diren Michael eta Peter anaiak abandonatutako jolas-parke zahar batera hurbiltzen dira urtero, haurrak zirela bertan desagertu baitzen Sam laguna. Baina aurten desberdina izango da.

Todos los años los ahora distantes hermanos Michael y Peter acuden a un viejo parque de atracciones abandonado donde su amigo Sam desapareció cuando eran niños. Pero este año es diferente.

## CUB / WELP

(2014)
Jonas Govaerts
Belgika / Bélgica
84 min



Samek hamabi urte ditu. Basoaren erdian kanpatzen du *scout* kideekin eta hiru begiralerekin batera. Bakarrik paseatzen ari dela – lagunen artean ospetsuena ez baita–, zuhaitz baten gainean dagoen etxe bat deskubrituko du. Bertan, beti maskara bat jantzita duen haur “basati” bitxia eta mehatxagarria bizi da. Taldeko liderrei deskubritutakoa kontatzen die Samek, baina ez diote jaramonik egiten, arazo asko eta irudimen gehiegi duen gaztea dela uste baitute. Baina agian horren damu izango dira, haurra ez baitago bakarrik.

Sam tiene doce años. Con sus compañeros *scout* y tres monitores acampa en mitad del bosque. En uno de sus solitarios paseos, pues no es el más popular del lugar, descubre una casa encima de un árbol donde vive un extraño y amenazador niño “salvaje” que siempre lleva una máscara puesta. Sam cuenta su descubrimiento a los líderes del grupo, pero estos no le hacen mucho caso, ya que consideran a Sam un joven problemático con demasiada imaginación. Pero quizá tengan que arrepentirse de ello, ya que el niño no está solo.

**22:30**

## THE MOLE SONG – UNDERCOVER AGENT REIJI

(*Mogura no uta – Sennyû sôsakan: Reiji*, 2014)
Takashi Miike
Japonia / Japón. 130 min



Reiji Kikukawak justiziarekiko errespetu handia erakusten du baina oso polizia txarra da, akademian graduatu zena historiako notarik baxuena eskuratuz. Horregatik, misio suizida bat aginduko diote: Kantoko talde kriminal arriskutsuenean, Sukiyakai taldean, infiltratu beharko da Shuho Todoroki taldeko arduradun goreneraino iristeko helburuarekin. Pixkanaka, eta batzuetan gogoz bestera, taldekide batzuen konfiantza eskuratzen hasiko da. Urtero bezala, Takashi Miikek ez dio hutsik egiten generoaren zaleekin duen hitzorduari film berri dibertigarri eta akzioz betea ekarriz.

Reiji Kikukawa tiene un gran sentido de la justicia, pero es un pésimo policía, graduado de la academia con la nota más baja de la historia. Por eso le encomiendan una misión suicida: infiltrarse en el clan criminal más peligroso de Kanto, la banda Sukiyakai, y llegar hasta su máximo responsable, Shuho Todoroki. Poco a poco y a veces pese a él mismo comienza a ganarse la confianza de algunos miembros del grupo. Divertida y llena de acción nueva película de Takashi Miike, fiel a su cita de cada año con los aficionados al género.

# 27
**ASTELEHENA** / LUNES

**17:00**

**ANIMAZIO FILM LABURRAK**
CORTOS DE ANIMACIÓN (81 min)

## Imposteur

(2013)
Elie Chapuis
Suitza / Suiza
7 min

Gau batean, gizaki itxurako orein bat gizon bati identitatea lapurtzen saiatuko da hiri batean, horretarako, burua kenduz eta bere buruarekin trukatuz. Mundu osoko hogeita hamar jaialdik baino gehiagok erakutsi dute film hau iazko amaieran estreinatu zenetik.

Una noche en una ciudad un ciervo con forma humana trata de robar la identidad de un hombre arrancándole la cabeza e intercambiándola por la suya. Más de treinta festivales de todo el mundo lo han proyectado desde su estreno a finales del año pasado.

## Invasion

(2014)
Hugo Ramírez, Olivier Patté
Frantzia / Francia
4 min

Meteorito batek Lurrarekin jo du. Gizakiei eragiten dien infekzio misteriotsu bat du. Gizakiak basapizti bortitz bilakatzen dira eta batak bestea hiltzeari ekiten diote. Zer gertatuko da planetarekin eta "zibilizazioa" deitutakoarekin?

Un meteorito se estrella en la Tierra. Trae consigo una misteriosa infección que afecta a todos los seres humanos. Se convierten en bestias rabiosas y se matan entre ellas. ¿Qué sucederá con el planeta y con la así llamada "civilización"?

## Kukka & hauta / Flower & Grave

(2014)
Malakias
Finlandia
4 min

Oihanak istorio ugari gordetzen ditu. Hau da horietako bat. Gertaezina den maitasunezko beste istorio bat dakarkigu Malakiasek, orain urte batzuk Asteak adoptatutako animatzaile finlandiarrak. Honako film hauek aurkeztu ditu Astean: **Bloody Hands** (2009), **Save the Rhinoceros** (2011) eta **Fist of Fire** (2013).

La jungla esconde muchas historias. Esta es una de ellas. Otro relato de un amor improbable a cargo de Malakias, animador finlandés adoptado hace años por la Semana, donde se han podido ver sus últimos trabajos: **Bloody Hands** (2009), **Save the Rhinoceros** (2011) y **Fist of Fire** (2013).

## El modelo de Pickman

(2014)
Pablo Ángeles
Mexiko / México
10 min

Richard Pickman arte makabroaren bere margolari gogokoenaren margolan bat eskuratzeko nahiari jarraituz, Thurber Phillips arte bildumazaleak artistaren obrak ezkutatzen duen misterioa ezagutuko du.

En la búsqueda por obtener un cuadro de su pintor favorito de arte macabro, Richard Pickman, el coleccionista de arte Thurber Phillips descubre el misterio encerrado en la obra del artista.

## The Raven

(2014)
Brandon Oldenburg, Fabian Limbert
AEB / EEUU
10 min

Edgar Allan Poeren izen bereko olerkiaren egokitzapena. Erotzeko zorian dagoela, narratzaileak Lenore maitearen galera gogoratuko du. Haluzinazioa izan daiteke, baina hitz bat xuxurlatzen duen bele baten silueta beltza ikusi duela uste du. Hitz bakarra errepikatzen du behin eta berriz: *"Nevermore"*.

Adaptación del poema homónimo de Edgar Allan Poe. Al borde de la locura el narrador recuerda la pérdida de su amada Lenore. Quizá sea una alucinación, pero le parece entrever la negra silueta de un cuervo que murmura una palabra, solo una, pero que repite varias veces: *"Nevermore"*.

## Sale gueule

(2014)
Alain Fournier
Kanada / Canadá
16 min

Loïk aurpegia desitxuratuta duen itsasgizona da eta itsasargi urrun batera bidaliko dute Morlaixekin batera lan egitera. Morlaix izaera zaila duen zahar tiranoa da. Iritsi bezain pronto, ekaitz arraro bati aurre egin beharko diote biek.

Loïk, un marino con la cara desfigurada, es destinado a un lejano faro para trabajar con Morlaix, un anciano tirano de personalidad complicada. Nada más llegar deberán enfrentarse juntos a una extraña tempestad.

## Dans la joie et la bonne humeur

(2014)
Jeanne Boukraa
Belgika / Bélgica
6 min

Dokumental esperimental honek, eguneroko bizitzaren eszenak baliatuz, gizarte baten gainbehera erakusten du, teknologiak gizateriaren amets handiena eskuratzea ahalbidetu duelako: hilezkortasuna.

Documental experimental que cuenta, mediante escenas de la vida cotidiana, la degeneración de una sociedad donde la tecnología ha permitido a la gente acceder al sueño más grande de toda la humanidad: la inmortalidad.

## Pandy

(2013)
Matúš Vizár
Eslovakia / Eslovaquia
11 min

Panda hartzak eboluzioaren ondorio dira. Milaka eta milaka belaunalditan basoetan bizi izan ziren beren kabuz, eta ez zuten inoren laguntzaren beharrik; erabat burujabe ziren. Baina egun batez, primateen artean eboluzionatuenak, gizakiak, aurkitu egin zituen.

Los osos panda son producto de la evolución. Millones y millones de generaciones vivieron por su cuenta en los bosques, siendo completamente independientes y autosuficientes. Pero un día el más evolucionado de los primates, el ser humano, los encontró.

---

## Bloquejats apilats

(2014)
Marc Riba, Anna Solanas
Espainia / España
6 min

Marc Ribak eta Anna Solanasek –**Violeta, la pescadora del mar negro** (2006), **Les bessones del carrer de Ponent** (2010), **Canis** (2013)– *stop motion* animazioarekin jarraitzen dute, lurperatzeko arriskuan dagoen eraikin bitxi baten istorioa kontatuz.

Marc Riba y Anna Solanas –**Violeta, la pescadora del mar negro** (2006), **Les bessones del carrer de Ponent** (2010), **Canis** (2013)– siguen fieles a la animación *stop motion* con la historia de un variopinto edificio que corre riesgo de sepultamiento.

---

## Cruise Patrol

(2013)
Arjan van Meerten / Bobby de Groot
Herbehereak / Países Bajos
7 min

Ibilbide luze eta hautseztatu batean, errepideko patruila batek auto baten ohiko ikuskapena egingo du, baina ustekabean aldatuko da egoera eta kontrolik gabeko zerbait bilakatuko da. Utrecht School of the Arts eskolako bi lizentziatuk elkarrekin zuzendu dute film labur hau.

En una larga y polvorienta ruta, una rutinaria inspección de un coche por parte de una patrulla de carreteras toma un sesgo inesperado y se convierte en algo absolutamente fuera de control en este corto dirigido al alimón por dos licenciados de la Utrecht School of the Arts.

---

## SAINT SEIYA: LEGEND OF SANCTUARY

(2014)
Keiichi Sato
Japonia / Japón
95 min



Gaiztakeria mundu osoan barreiatu ondoren, itxaropenaren gerlariak agertuko dira... Egun, azken Gerra Santua izan zenetik urte asko igaro ondoren, Saori Kido bere botere misteriotsuek kezkatutako neska da. Berak ez dakien arren, Atenearen haragitzean bilakatzea da bere patua, bai eta bere zaldunek zainduta bakearen alde egitea ere. Baina Patriarkak, Santutegiko agintari gorenak, beste plan batzuk ditu... Pegasoren Zaldun Seiyak hiltzeko saiakera batetik salbatu ondoren, Saorik bere patua onartuko du eta Santutegirantz abiatuko da Brontzezko Zaldunen talde txiki batek lagunduta. Bertan Patriarkari aurre egin eta Urrezko Zaldun entzutetsuen kontra borrokatu beharko dira.

Cuando la maldad se extiende por el mundo, aparecen los guerreros de la esperanza... En la actualidad, muchos años después de la última Guerra Santa, Saori Kido es una chica abrumada por sus misteriosos poderes. Aunque ella no lo sepa, está destinada a convertirse en la reencarnación de Atenea y defender la paz custodiada por sus caballeros. Pero el Patriarca, la máxima autoridad del Santuario, tiene otros planes... Tras ser salvada de un intento de asesinato, Saori acepta finalmente su destino y pone rumbo al Santuario acompañada por un pequeño grupo de Caballeros de Bronce. Allí deberán hacer frente al Patriarca y librar una batalla desesperada contra los legendarios Caballeros de Oro.

22:30

## Territoire
(2014)
Vincent Paronnaud
Frantzia / Francia
23 min

Pirinioak, 1957. Pierre udako larreetara iritsi da bere artaldearekin. Otsoaren beldur da, baina hari aurre egiteko prest da. Ez dago prest, ordea, zain duen horretarako. **Persepolis** (2007) eta **Poulet aux prunes** (2011) pelikulen egileetako batek, Vincent Paronnaudek, zuzendutako film laburra.

Pirineos, 1957. Pierre llega a los pastos de verano con su rebaño de ovejas. Tiene miedo del lobo, pero está preparado para enfrentarse con él. Sin embargo, no lo está para lo que le espera. Dirigido por Vincent Paronnaud, coautor de **Persépolis** (2007) y **Pollo con ciruelas** (2011).

## AUX YEUX DES VIVANTS
(2014)
Alexandre Bustillo & Julien Maury
Frantzia / Francia. 90 min



Hiru gazte eskolatik alde egin eta abandonatutako zinema estudio batera abiatuko dira. Erabat izutuko dituen zerbait ikusten dute bertan: maskaradun batek emakume gazte bat bahitu du. Gizonak ikusi egin dituela dirudi eta ihes egiten saiatzen dira. Baina ihes egin aurretik, urte luzeetan ezkutuan egon den zerbait ikusiko dute; ikusi behar ez luketen zerbait. Bustillo eta Mauryk zuzendutako hirugarren film luzea da, aurreko biak, **À l'intérieur** (2007) eta **Livide** (2011), Astean aurkeztu ondoren.

Tres jóvenes se escapan de clase y van a un estudio de cine abandonado. Allí ven algo que les deja completamente aterrorizados: un enmascarado ha secuestrado a una mujer. El hombre parece que les ha descubierto y ellos tratan de escapar. Pero antes de conseguirlo verán algo que ha permanecido oculto durante muchos años, algo que no deberían haber visto. Tercer largometraje dirigido por Bustillo y Maury, que han presentado en la Semana sus anteriores trabajos: **À l'intérieur** (2007) y **Livide** (2011).

# 28
**ASTEARTEA** / MARTES

17:00

**ESTATUKO FILM LABURRAK**
CORTOMETRAJES ESTATALES (119 min)

## La carrera
(2014)
Christopher Cartagena
16 min

Herri txiki bat setiatu egin dute biztanleria osoari eragin dion epidemia arraro baten ondorioz. Alfredo ere kutsatuta dago. Jolas baten bidez, alaba bertatik bakarrik irten dadin entrenatuko du. Behar izanez gero, aita atzean uzteko gai izango al da neskatoa?

Un pequeño pueblo ha sido sitiado por la aparición de una extraña epidemia que ha afectado a toda la población. Alfredo también ha sido contagiado. Mediante un juego entrenará a su hija para salir de ahí sola. ¿Será capaz la niña de abandonar a su padre llegado el momento?

## Line-Up
(2014)
Alex Julià
20 min

Detroiteko disko-denda batean lan egiten duen gazte batek esperientzia paregabea izango du binilo misteriotsu bati esker. Harrezkero, bere bizitza erabat aldatuko da eta bere inguruneari ere eragingo dio. Baina horrelako zerbait bizitzeko prest al dago?

Un joven que trabaja en una tienda de discos de Detroit vive una experiencia única gracias a un misterioso vinilo. A partir de entonces su vida dará un giro de 180 grados que afectará a todo su entorno. Pero, ¿está realmente preparado para vivir algo así?

## Nada
(2014)
David González Rudiez
6 min

Emakumea irakurtzen ari da. Gizona lo dago. Gizonak zurrunga egitea gogaitzen du emakumea. Gizona esnatu eta komunera jo du. Ohera itzultzean... David González Rudiez zuzendariaren –**Los que lloran solos** (2009), **La calma** (2011)– film berria da hau. Aurten, halaber, bere lehen film luzea filmatu du: **Fui la sombra**.

Una pareja en la cama. Él aparentemente duerme. Ella lee. A ella le molestan los sonidos que emite él. Pero, ¿hay alguien más en la casa? Nuevo corto de David González Rudiez –**Los que lloran solos** (2009), **La calma** (2011)–, que este año ha rodado su primer largo: **Fui la sombra**.

## Zepo
(2014)
César Díaz Meléndez
3 min

Duela asko, egur bila irten zen neguko egun batean, etxetik gehiegi urrundu zen, odol arrastoa aurkitu zuen... eta hari jarraitu zion. César Díaz Meléndez animatzaileak teknika anitz erabiltzen ditu, eta azken aldian harearekin lan egin du **No corras tanto** (2009) eta **Atormenta** (2009) film laburretan.

Hace tiempo, un día de invierno, salió a buscar leña, se alejó demasiado de casa, encontró un rastro de sangre... y lo siguió. Animador que ha utilizado diversas técnicas, César Díaz Meléndez se ha especializado en los últimos tiempos en trabajar con arena en cortos como **No corras tanto** (2009) o **Atormenta** (2009).

## Nada S. A.
(2014)
Caye Casas, Albert Pintó
15 min

Carlosek urteak daramatza langabezian. Aurkeztutako lan elkarrizketa guztietan porrot egin du eta lur jota dago. Egun batean, NADA S. A. izeneko enpresa baten iragarkia ikusiko du, ezer ez egiteagatik kobratu nahi duen pertsonaren bila dabilela. Carlosek lana lortuko du, baina egun horrek bizitza aldatuko dio.

Carlos lleva años en paro. Está desesperado después de fracasar en todas las entrevistas de trabajo a las que se presenta. Un día ve un anuncio de una empresa llamada NADA S. A. que busca un candidato que quiera cobrar por no hacer nada. Carlos consigue el trabajo, pero ese día le cambiará la vida.

## El Bosque Negro
(2014)
Paul Urkijo Alijo
15 min

*Sir* Héctor armadura eta zaldia duen zaldun ausarta da, eta Baso Beltzean sartzeko asmoa du, ogro izugarri baten eskuetan dagoen dama ederra askatzeko. Irabaztea lortuko al du, beste batzuk izuaren eta heriotzaren mende geratu direla kontuan hartuta? Paul Urkijo gasteiztarraren film labur berria da; aurretik, besteak beste, **Monsters Do Not Exist** (2012) eta **Ohe azpiko zera** (2012) egin zituen.

*Sir* Héctor, un valiente caballero con armadura y corcel, se dispone a penetrar en el Bosque Negro para liberar a una hermosa dama, presa de un terrible ogro. ¿Conseguirá vencer donde otros han sucumbido al horror y la muerte? Nuevo corto del vitoriano Paul Urkijo, responsable de **Monsters Do Not Exist** (2012) y **Ohe azpiko zera** (2012), entre otros.

## La Ropavejera
(2014)
Nacho Ruipérez
29 min

Hemeretzigarren mendeko luxuzko etxe batean bederatzi haur elkarrekin giltzaperatuta bizi dira eta itxura hotzeko emakume baten gehiegikeriak jasaten dituzte. Haurrek “ama” esatea atsegin du emakumeak. Enriqueta Martí, “carrer Ponenteko banpiroa” izenez ezaguna, proxeneta, sendatzaile eta hiltzailearen bizitzari buruz libreki egindako film laburra da. Emakume honek Bartzelona osoa izutu zuen XX. mendean.

Encerrados en una mansión decimonónica, nueve niños conviven recibiendo los abusos por parte de una mujer de aspecto gélido a quien le gusta que los pequeños la llamen “madre”. Corto basado libremente en la vida de la proxeneta, curandera y asesina Enriqueta Martí, popularmente conocida como “la vampira del carrer Ponent”, que aterrorizó Barcelona a principios del siglo XX.

## Safari
(2014)
Gerardo Herrero
15 min

Egun arrunt bat institutu iparramerikar batean, baina egun hori bestelakoa izango da... Gerardo Herrero publizitate zuzendari asturiarraren film labur berria da; aurretik, **Picnic** (2010) eta **The Acrobat** (2013) filmatu zituen.

Es un día cualquiera en un instituto norteamericano, pero ese día no será como los demás... Nuevo cortometraje del asturiano Gerardo Herrero, director de publicidad y de cortos como **Picnic** (2010) o **The Acrobat** (2013).

## ALLELUIA
(2014)
Fabrice du Welz
Belgika-Frantzia / Bélgica-Francia
90 min



Gloriak senarra utzi du eta alabarekin alde egin du. Pertsonen arteko hitzorduak lotzen dituen web orri batean sartzera bultzatuko du lagun batek eta Michelekin elkartuko da. Lehen aldiz elkar ikustean, berarekin erabat maiteminduko da. Baina Michel *gigoloa* da, eta gaua elkarrekin igaro eta diru apur bat lortu ondoren, desagertu egingo da. Gloriak aurkitu egingo du eta berarekin geratzea erabakiko du, bere "lanean" laguntzeko. Fabrice du Welz zinemagile belgikarraren –**Calvaire** (2004), **Vinyan** (2008)– film gogoberotua, sutsua eta lazgarria da, Lola Dueñas bikain eta eroa protagonista duena. "Bihotz bakartien hiltzaileak" kasu errealean oinarritzen da, eta iraganean pantailara eraman zuten, besteak beste, William Castlek eta Arturo Ripsteinek.

Gloria ha abandonado a su marido y se ha marchado con su hija. Una amiga la incita a entrar en una página web de citas y queda con Michel. La primera vez que se ven ella se enamora perdidamente de él. Pero Michel es un *gigoló* y tras pasar la noche juntos y sacarle algo de dinero desaparece. Gloria le encuentra y decide quedarse con él para ayudarle en su "trabajo". Enfebrecida, apasionada y terrorífica película del belga Fabrice du Welz –**Calvaire** (2004), **Vinyan** (2008)– protagonizada por una extraordinaria y enloquecida Lola Dueñas, basada en el caso real de los "asesinos de los corazones solitarios", que en el pasado ya llevaron a la pantalla, entre otros, William Castle y Arturo Ripstein.

### 22:30 (Euskaraz)

## HILTZAILEAK
(*Killers*, 2014)
The Mo Brothers
(Timo Tjahjanto & Kimo Stamboel)
Indonesia-Japonia /
Indonesia-Japón
137 min



Tokion, exekutibo arrakastatsu batek bestelako zeregina du gauez: emakumeak hil, hilketak bideoz grabatu eta irudiak Interneten zintzilikatzen ditu. Jakartan, bere bizitza profesionala zein pertsonala lur jota dituen kazetari batek grabazio horiek deskubrituko ditu. Krimen horiek nazka eta lilura eragingo diote aldi berean eta ezingo dio behin eta berriz ikusteari utzi. Hiltzaile japoniarrak aurkitu egingo du, eta harreman bitxia sortuko da bien artean, bietako inork noraino iritsiko den jakin gabe. Mo Brothers indonesiarrek –**Macabre** (2009)– zuzendutako bigarren film luzea da.

En Tokio un exitoso ejecutivo tiene otra ocupación por las noches: asesina mujeres, lo graba todo en video y cuelga las imágenes en Internet. En Yakarta un periodista cuya vida profesional y personal se desmorona descubre estas grabaciones y queda al tiempo repelido y fascinado por los crímenes, que no puede dejar de ver una y otra vez. El asesino japonés le localiza y se inicia entre ellos dos una curiosa relación que ninguno de los dos sabe hasta dónde llegará. Segundo largometraje dirigido por los indonesios Mo Brothers, responsables de **Macabre** (2009).

# 29
**ASTEAZKENA** / MIERCOLES

**17:00 (Euskaraz) “24 ASTE GEROAGO” ZIKLOA – FILM LABURRAK**
CICLO “24 SEMANAS DESPUÉS – CORTOMETRAJES (106 min)

## Kitchen Sink
(1989)
Alison Maclean
Zeelanda Berria / Nueva Zelanda
14 min

Emakume bat sukaldeko harraska garbitzen ari da beldur modernoaren film klasiko eta “lynchtar” honetan. Erabat garbi dagoela iritzita, ordea, ilea dirudien zer edo zer ageri dela antzemango du. Ateratzen saiatuko da. Eta tiratu egingo du, eta berriz tiratu egingo du, eta berriz ere. Baina sekula amaitzen ez dela dirudi.

Una mujer limpia el fregadero de su cocina en este perturbador y “lynchiano” clásico del terror moderno. Cuando ya parece que está perfecto, observa que algo parecido a un pelo asoma por allí. Intenta arrancarlo. Y tira y tira y tira. Pero parece que no se acaba nunca.

## Surprise!
(1995)
Veit Helmer
Alemania
6 min

Veit Helmer alemanaren seigarren filme laburra da **Surprise!** –izenburua bera du muina–, eta ongi frogatzen du, zuri beltzeko filme isil eta eskuz zehatz eta gaisotzeko moduan margotua den heinean, errealitateak buelta asko dituela, ezer ez dela dirudien bezalakoa.

Sexto cortometraje del alemán Veit Helmer, **Surprise!** –su título es su esencia– demuestra, desde su propia condición de película silente y blanquinegra meticulosa y enfermizamente coloreada a mano, que la realidad es reversible, que nada es lo que parece.

## Elevated
(1996)
Vincenzo Natali
Kanada / Canadá
20 min

Bulegari batek eta itxura iluneko gizon batek igogailuan bat egingo dute, baina giroak iradokitzen duen mehatxu egoera zehaztu aurretik, hirugarren pertsonaia bat sartuko da: kamiseta odolez zikinduta duen eta estralurtarrek Lurra indarrez hartu dutela dioen mutil gazte bat.

Una oficinista y un tipo de turbio aspecto coinciden en un ascensor, pero, antes de que se concrete la situación de amenaza sugerida en el ambiente, un tercer personaje hace su aparición: un joven con la camiseta ensangrentada que les dice que los extraterrestres han invadido la Tierra.

## George Lucas in Love
(1999)
Joe Nussbaum
AEB / EEUU
10 min

Hasieran, film honen arabera, George Lucas blokeatuta zegoen erabat bere gidoi galaktikoarekin, bere graduaziokoa ere bazena. Orduan Bera azaldu zen, printzesa. Eta maitemindu egin ziren. Eta hura desblokeatu egin zen. Eta ondoren dakigun guztia gertatu zen Jedik kontatu zigulako.

En el principio, según esta película, George Lucas estaba absolutamente bloqueado con su guion galáctico, que era también el de su graduación. En esto apareció Ella, la princesa. Y se enamoraron. Y él se desbloqueó. Y luego pasó por todo lo que ya sabemos porque nos lo contó el Jedi.

## Mis vacaciones
(1999)
J. A. Bayona
Espainia / España
12 min

J. A. Bayonak ESCACen zuzendutako lehen film laburra, bai eta zinema espainiarrean sari gehien jaso dituenetako bat ere. Haur batek ikasturtea amaitu du eta aitona-amonen herrira joango da oporretan.

Primer cortometraje dirigido por J. A. Bayona en la ESCAC, uno de los más premiados del cine español. Un niño acaba el curso escolar y se va de vacaciones al pueblo de sus abuelos.

## Duck Children
(2001)
Sam Walker
Erresuma Batua / Reino Unido
8 min

Eskolako antzezpen batean, ahatez mozorrotutako haurrak erritmoari jarraituz mugitzen dira... bat salbu. Eskopeta duen gizon bat besaulki-patioan agertuko da. Sam Walker zuzendariak –Astearen ohiko adizkidea– zuzendutako lehen film laburra.

En una representación escolar un grupo de niños disfrazados de patos se mueven acompasadamente... excepto uno. Un hombre con una escopeta aparece en el patio de butacas. Primer corto dirigido por un habitual de la Semana, Sam Walker.

## Staplerfahrer Klaus
(2001)
Jörg Wagner, Stefan Prehn
Alemania
10 min

Biltegi bateko zama-lanetarako “zezena” gidatzen duen langile baten lehen laneguna mutilazioz eta odolez ondutako orgia batean amaituko da. Guztia ere, laneko segurtasunari buruzko aholkuez hornituta (eta zipristinduta).

El primer día en la vida laboral de un operario que conduce un “toro” de carga y descarga en un almacén desemboca en una orgía de sangre y mutilación que, por supuesto, contiene (e ilustra) una serie de pertinentes consejos sobre seguridad laboral.

## Rare Exports Inc.
(2003)
Jalmari Helander
Finlandia
8 min

1793az geroztik onenak. Zalantzarik gabe sektoreko enpresa liderra. Urteetako esperientzia. Haiek bezain hoberik ez da iparraldeko lur bakartuetan egoera basatian bizi diren izaki bitxi horiek atzemateko. Eta ondoren dator zailena: heztea.

Los mejores desde 1793. Sin duda la empresa líder en su sector. Años y años de experiencia. Nadie como ellos para la caza de esos extraños seres que viven en estado salvaje en las inhóspitas tierras del norte. Tras la captura viene lo más complicado: la domesticación.

## Oh My God
(2004)
John E. Bryant
AEB / EEUU
9 min

Ingelesezko film laburren historian inoiz ez dugu lan bakar batean hainbestetan entzungo film honi izena eman dion esamoldea. Sundancen eta Clermont-Ferranden aurkeztutako film laburra da, oso adeigabea eta, zalantzarik gabe, oso barregarria. Gizon bat etxera iristen da eta bertan topatzen duen giroa ikusita hauxe bakarrik esan dezake: *“Oh My God”*.

Nunca en la historia del cortometraje en lengua inglesa se ha pronunciado más en un solo trabajo la expresión que da título a este inclasificable, muy incorrecto, sin duda hilarante, corto presentado en Sundance y Clermont-Ferrand. Un hombre llega a su casa y ante el panorama que allí se le ofrece sólo puede exclamar: *“Oh My God”*.

## Maquetas
(2009)
Carlos Vermut
Espainia / España
3 min

Lan dramatikoa, ahaztutako hiru biktimen testigantzak jasotzen dituena. Izugarrizko tragedia sufritu zuten hiru pertsona. Harrezkero, betiko aldatu da haien bizitza, kolpetik geratu ziren suntsituta haien ametsak eta itxaropenak.

Dramático trabajo que recoge los testimonios de tres víctimas olvidadas. Tres personas que sufrieron una tragedia espantosa que las cambió para siempre, que acabó de golpe con sus sueños y esperanzas, que alteró completamente el curso de sus vidas.

## The Centrifuge Brain Project

(2011)
Till Nowak
Alemania
6 min

Centrifuge Brain Project 70eko hamarkadan sortu zen. Jolas-parkeek haurren ikasteko gaitasunean zuten eragina aztertu zuten beste ikertzaileren lanetan oinarrituta, Floridako ICR (Institute for Centrifugal Research) institutuak azterketa hura zabaldu nahi du, atrakzioek helduen garun-gaitasunean eragin positiboa ote duten jakiteko.

El Centrifuge Brain Project comenzó en los años 70. Siguiendo los trabajos de otros investigadores que trataban de averiguar la influencia de los parques infantiles en el aprendizaje de los niños, el ICR (Institute for Centrifugal Research) de Florida decide ampliar el estudio y tratar de saber si las atracciones de feria tienen una influencia positiva en la capacidad cerebral de los seres humanos adultos.

**19:45**

## The Last Man

(2014)
Gavin Rothery
Erresuma Batua (Ingalaterra) / Reino Unido (Inglaterra)
20 min

Jacob Stanton erreserbako sarjentua esnatzen den unean mundua erabat suntsituta dagoela ikusten du. Leku orotatik inguratzen duen hondamendian barrena ibiliko da, inorekin topo egin gabe. Baliteke bizirik dagoen azken pertsona izatea.

El sargento en la reserva Jacob Stanton despierta y descubre que el mundo está completamente destruido. Viaja a través de la destrucción que le rodea por todas partes sin encontrarse con nadie. Quizá es la última persona viva.

## V/H/S VIRAL

(2014)
Marcel Sarmiento, Gregg Bishop, Nacho Vigalondo, Justin Benson & Aaron Moorhead
AEB / EEUU
81 min



Sagako hirugarren filma lau pasartek osatzen dute. Justin Benson & Aaron Moorhead –**Resolution** (2012)–, Gregg Bishop –**Dance of the Dead** (2008)–, Marcel Sarmiento –**Deadgirl** (2008)– eta Nacho Vigalondo –**Open Windows** (2014)– zuzendariek filmatu dituzte kapituluok. Burutik egindako ilusionista batek botere handia emango dion kapa eskuratzen du, etxeko makina batek beste mundu baterako atea irekitzen du eta mundu bera dirudien arren ez da horrela eta *skater* talde bat sorginkeria erritu baten biktima bilakatuko da. Istorio horiek kontatzen ditu filmak, nerabe talde batek Los Angelesen automobilen jazarpen baten atzetik dabilen bitartean.

Tercera entrega de la saga, compuesta en esta ocasión por cuatro episodios dirigidos por Justin Benson & Aaron Moorhead –**Resolution** (2012)–, Gregg Bishop –**Dance of the Dead** (2008)–, Marcel Sarmiento –**Deadgirl** (2008)– y Nacho Vigalondo –**Open Windows** (2014)–. Un ilusionista perturbado que consigue una capa que le da un gran poder, una máquina casera que abre una puerta a otro mundo que parece el mismo pero no lo es y unos *skaters* que se convierten en las víctimas de un rito de santería protagonizan estas historias narradas mientras unos adolescentes siguen una persecución automovilística en Los Ángeles.

**22:30**

## Dédalo

(2013)
Jerónimo Rocha
Portugal
10 min

Talde txiki bati espazio-ontzi erraldoi bateko findegia helmugara iritsi aurretik konpontzeko enkargua egingo diote. Baina zeregin hori konplikatu egingo da. Izaki bitxiek jazarriko dituzte Siena gaztea eta haren lagunak.

Un pequeño equipo es contratado para reparar la refinería de una gigantesca nave espacial antes de que llegue a su destino. Pero el trabajo se complica. Extrañas criaturas acosarán a la joven Siena y a sus compañeros.

## LIFE AFTER BETH

(2014)
Jeff Baena
AEB / EEUU
91 min



Zach lur jota dago Beth neskalaguna ezustean hil delako. Behin gurasoei bisita egitera doala, sekulako ezustekoa hartuko du… bizirik da berriz ere! Denbora lehen baino hobeto aprobetxatzea erabakiko du, denbora gehiago elkarrekin igaro, harekin sekula egin ezingo lituzkeen gauzak esperimentatu… Baina Beth ez da garai bateko pertsona bera; itzulerarekin, jokabidez aldatu da eta oso azkar deskonposatzen ari dela dirudi. Jeff Baena zinemagileak zuzendutako lehen filma da; aurretik, **I Heart Huckabees** (2004) filmeko gidoia egin zuen David O. Russellekin batera.

Zach está devastado por la inesperada muerte de su novia, Beth. Visitando un día a sus padres, descubre con gran sorpresa que… ¡ha vuelto a la vida! Decide aprovechar el tiempo mucho mejor que antes, pasar más ratos juntos, experimentar cosas que pensaba que ya nunca podría hacer con ella… Pero Beth ya no es la misma de antes, su comportamiento ha cambiado tras su retorno y parece descomponerse por momentos. Primera película dirigida por Jeff Baena, coguionista junto a David O. Russell de **Extrañas coincidencias** (2004).

## PUZZLE / PAZURU

(2014). Eisuke Naito
Japonia / Japón. 85 min



Talde armatu misteriotsu batek Japoniako hiri txiki bateko institutua indarrez hartzen du. Puzzle bitxi bat prestatzen dute, ebatzi egin beharko dena bahitu duten irakaslearen bizia salbatzeko. Baina, ezustean, bahitzaileak irakaslearekin eta institutuko zenbait ikaslerekin batera desagertzen dira. Misteriozko eta beldurrezko puzzle txikia, filma aurrera doan heinean, pixkanaka argitzen doana.

El instituto de una pequeña ciudad japonesa es tomado por la fuerza por un misterioso grupo armado. Preparan un extraño puzle que debe ser resuelto para salvar la vida de una profesora que ha sido tomada como rehén. Pero inesperadamente los raptores desaparecen junto con la profesora y algunos alumnos del centro. Pequeño puzle de misterio y terror que se va desvelando poco a poco conforme avanza el metraje.

# 30

**OSTEGUNA** / JUEVES

**17:00**

## Mitt Förra Liv / My Past Life

(2013). Sebastian Lindblad
Suedia / Suecia. 3 min

Obsesio batek itsututako eta errealitatetik kanpo bizi den gizon baten istorioa.

Esta es la historia de un hombre cegado por una obsesión y alejado de la realidad.

## THE MAN IN THE ORANGE JACKET

(2014). Aik Karapetian
Letonia-Estonia. 71 min



Portuan egiten zuen lanetik kaleratuta, bere ugazaba eta haren emaztea zelatatzeari ekingo dio gazte batek. Gertakari odoltsu baten ostean, haien etxean sartu eta pixkanaka beste pertsona batean bilakatuko da. Aurreko pertsonaren eta *habitat* berrian sortzen ari denaren arteko gatazka sortuko da. Aik Karapetian armeniarrak zuzendutako film lehorra, aztoragarria eta latza. Baltiko aldetik mundu osoko genero jaialdietan arrakasta handia izaten ari da zuzendaria.

Tras ser despedido de su trabajo en el puerto, un joven comienza a acechar a su jefe y a su esposa. Tras un sangriento giro de los acontecimientos se instala en su mansión y comienza a convertirse paulatinamente en otra persona. Su antiguo yo y el que va surgiendo de su nuevo hábitat entran en conflicto. Seca, inquietante y austera película dirigida por el armenio Aik Karapetian que desde el Báltico está conquistando los festivales de género de todo el mundo.

20:00

## MONSTERCHEF



Beldurrezko Asteak, Axelcasasek eta A Fuego Negrok beldurra, dastatze gastronomikoa eta zuzeneko animazioa uztartzen dituen ikuskizuna aurkezten dute. Besaulki-patioko konplizitatea ezinbestekoa izango gure jaialdiaren 25. urteurrenerako espresuki sortutako menu dibertigarri eta paregabe honetan. Oso posible da horren bikainki desatsegina den zerbait sekula berriz ere ez dastatzea. Zapore berrien beldur ez bazara eta barrena duzula uste baduzu, ezin duzu galdu.

La Semana de Terror, Axelcasas y A Fuego Negro presentan un espectáculo que suma terror, degustación gastronómica y animación en vivo. Un menú divertido y único creado ex profeso para el 25 aniversario de nuestro festival, donde la complicidad del patio de butacas será imprescindible. Probablemente no vuelvas a degustar algo tan exquisitamente desagradable. Si no te asustan los sabores nuevos y crees tener estomago suficiente, no te lo puedes perder.

## Next Floor

(2008)
Denis Villeneuve
Kanada / Canadá
11 min

Oturuntza oparo eta pantagrueliko bat ospatzen ari da jantoki soil eta hauts pixka batez betetakoan. Hamaika gonbidatuk, geroz eta antsietate gehiagoz, mota guztietako haragiak ari dira irensten. Espezie guztietako animaliak irteten dira sukaldetik berehala irentsiak izateko, txingarretan erretako azpizunaren, saltxitxen, labean erretako orein edo basurdeen hanken, bihotzen eta beren saltsan aurkeztutako garun eta gibelen orgia honetan.

Un opulento y pantagruélico banquete tiene lugar en un comedor sobrio y quizá algo polvoriento. Once invitados devoran con una ansiedad creciente todo tipo de carnes. Animales de todas las especies van saliendo de la cocina para ser inmediatamente deglutidos en esta orgía del solomillo a la brasa, de las salchichas, de las piernas de ciervo o jabalí asadas al horno, de corazones, sesos e hígados en su jugo.

## M Is for Malnutrition

(2013)
Peter Czikrai
Eslovakia / Eslovaquia
3 min

Hildako bizidunez betetako mundu batean, janari poto bat lortzeko borroka bizitzaren aldeko borroka bilaka daiteke. Iazko Astean **Good Night** (2013) filma aurkeztu zuen Peter Czikrai eslovakiarraren lan berria da.

En un mundo lleno de muertos vivientes, la lucha por una lata de comida puede ser una lucha por la vida. Nuevo trabajo del eslovaco Peter Czikrai, que el año pasado presentó en la Semana **Good Night** (2013).

## Ogre

(2013)
Jean-Charles Paugam
Frantzia / Francia
15 min

Hondartza. Itsaso urdin argia. Hondar zuria. Etxean ezkutaturik dago, eguzkitik eta jende gogaikarritik urrun. Gortinaren atzetik, Marie ikusiko du, turista gazte eta ederra... eta gaua noiz iritsiko zain geratuko da.

La playa. El mar azul celeste. La arena blanca. Él permanece escondido en su casa, lejos del sol y de la molesta gente. Desde detrás de las cortinas descubre a Marie, joven y hermosa turista... y espera a que llegue la noche.

22:30

## Minuit

(2013)
Alban Coret
Frantzia / Francia
14 min

Iraganaren eta orainaren arteko leku batean, ilusioa galdutako sendatzaile batek herrialdean barrena Cadillac baten atzealdean eserita bidaiatzen du.  Leku guztietan, pertsona anonimo sinestunak bere bisitaren zain dira. Haiena den zerbait du berak eta hori berreskuratu nahi dute.

En un lugar entre el pasado y el hoy, un desilusionado curandero recorre el país sentado en la parte trasera de un Cadillac. Por todas partes anónimos creyentes esperan pacientemente su visita. Él tiene algo que les pertenece y que ellos quieren recuperar.

## [REC]4

(2014)
Jaume Balagueró
Espainia / España
85 min



Gaur egungo beldurraren ikuspegia aldatu duen istorioaren laugarren eta azken filma. Oraingoan, Jaume Balagueró bakarrik jarri da kamera atzean; istorioaren amaiera? Kontatzeko. Istorioa Ángela Vidal (Manuela Velasco), infekzio izugarritik bizirik irten den pertsona bakarra, eraikinetik ateratzeko unean hasten da. Egoera kontrolatuta dagoela dirudienean, ordea, kaosa itzuliko da berriz ere eta gaizkiaren hazia forma berri eta izugarriekin ernatuko da. Zuzendariaren hitzetan: *"Sekulako ardura adierazten duela jakitun, laugarren filma desberdina, baina aurrekoekiko fidela izatea izan da nire asmoa; istorioaren jatorri maltzur eta ilunetara itzulera. Koska bat estuago, urrats bat gehiago ezezagunerantz, izu hutserantz. Beldurraren eta itoaldiaren jolas-parke berri bat eraikiko dugu. Eta, oraingoan, handiagoa, zorabiagarriagoa, biziagoa… izan dadin saiatuko gara. Baita akuatikoa ere…"*.

